

ITZIAR GANDARIAS  
UXUE ZUGAZA

# INTERSEKZI NALITATEA

## praktikarantz

hausnarketarako eta  
ekintzarako gida





# **Interseksionalitatearen praktikarantz:** hausnarketarako eta ekintzarako gida

ITZIAR GANDARIAS  
UXUE ZUGAZA

### **Egileak**

Itziar Gandarias Goikoetxea eta Uxue Zugaza Goienetxea

### **Koordinazioa**

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Kohesioaren Arloa

### **Ilustrazioak**

Bea Aparicio

### **Diseinua eta maketazioa**

a\_erre

## Aurkibide

### Sarrera 6

- Gida honetako “sukaldeko lana” 6
- Nola hurbildu gida honetara 8
- Gidaren egitura 8

### Nola ulertzen dugu interseksionalitatea? 9

- Nondik abiatzen gara? 13
- Interseksionalitatea: galdera irekia 17
- Interseksionalitatean pentsatzeko metaforak 20
- Nola ulertzen ditugu desoreka-kategoriak? 30
- Amaitzeko, hiru ideia 33

### Interseksionalitatea praktikara eramateko jarraibideak 34

- **Orokorrak eta zeharkakoak 38**
  - Desoreka-ardatzen arteko lotura 38
  - Ziurtzat ez ematea 39
  - Etengabe geure buruari galdetzea 40
  - Testuingurua kontuan hartzea 41
  - Partaidetza esanguratsua 44
  - Begirada eta lan komunitarioa 45
- **Erakundearekin edo elkartearekin lotutako jarraibideak 46**
  - Gogoeta egiteko galdera batzuk 46
  - Barrura begiratzea 46
  - Gure espazioak, metodologiak eta hizkuntza birpentsatzea 47
  - Aliantzak eraikitzea eta sareko lana 48
- **Proiektu edo jarduera zehatzekin lotutakoak 50**
  - Proiektuak problematiken arabera pentsatzea 50
  - Entzute aktiboa 52
  - Denborak eta prozesuak “su motelean” 53

### Tresna-banku bat 54

- Ikus-entzunezko baliabideak 55
- Proiektuak, tresnak eta materialak 55

**Sarrera**<sup>1</sup> Gero eta erakunde, kolektibo eta elkarte gehiago daude sensibilizatuta desoreken konplexutasunaren aurrean, eta egoera horiei modu integralean aurre egin behar zaiela jabetzen dira. Horrela, argi ikusten da desoreka-ardatz bakar batean oinarritutako diagnostikorako eta esku hartzeko tresnak osatu egin behar direla beste ardatz batzuekiko intersekzioa edo elkargunea barnean hartzen duten begiradekin.

Diagnostiko hori aspalditxo jarri zen mahai gainean, baina interseksionalitatea praktikara eramateko aukera emango diguten tresnak falta dira oraindik. Gida honek behar horri erantzun nahi dio, eta, helburu horrekin, zenbait jarraibide ematen ditu tresna horiek aplikatzeko eta abian jartzeko. Hainbat desoreka-egoeratan esku hartzen duten eta egoera horiei arreta eskaintzen dieten erakundeei zuzenduta dago, baina baliagarria izan daiteke baita ere beren praktikak eta lan egiteko moduak ikuspegi interseksionaletik berrikusi nahi dituzten profesionalentzat eta aktibistentzat.

## **Gida honetako “sukaldeko lana”**

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Kohesioaren arloko lantalde teknikoaren laguntza izan dugu gida honen lanketan, eta, batez ere, Bizkaiko gizarte-erakundeen ekarpenak jaso ditugu. 2024ko ekainean, lan-jardunaldi bat antolatu zen, eta lanean ibilitako 14 erakundetako 21 pertsonak parte hartu zuten jardunaldi horretan. Hainbat desoreka-ardatzetan arituta-koak, hain zuzen: errefuxiatuei, LGTBI pertsoneri, migratuei, ijitoei eta gizarte-bazterketa larrian dauden pertsoneri arreta ematea, besteak beste. Erakunde horien esperientziazatik abiatuta, artatzen zituzten egoeretan interseksionalitatea abian jartzearekin lotutako estrategiak, lan egiteko moduak, zalantzak edo kezkak sistematizatzea izan zen saio horren xedea. Horretarako, parte-hartzean oinarritutako lantegi bat

diseinatu zen, erakundeek hiru galdera hauen inguruko hausnarketa egin zezaten:



- Zure erakundearen erreferentziazko gizarte-talde bakarra izan arren, nola lantzen duzue taldearen barneko heterogeneotasuna?
- Hizkuntzari dagokionez, zer hitz, termino edo kontzeptu gertatzen zaizkizu baliagarriak barne-heterogeneotasun hori lantzeko unean?
- Diru-laguntza publikoen deialdiei dagokionez, zer zailtasun izaten dituzu interseksionalitatea nola lantzen duzun azaltzeko?

Gida honetan jasotako edukiek elkarrekin egindako hausnarketa horretatik sortutako proposamenak, identifikatutako zailtasunak eta beste kezka batzuk garatzen dituzte. Lantegian parte hartu zuten erakundeek eta pertsonak egin zituzten ekarpenak transkribatu eta sistematizatu egin ziren. Hasierako material horretatik abiatuta, ikuspegi interseksionala praktikan jartzeko gako batzuk landu, ordenatu eta garatu ditugu. Dokumentuaren lehen zirriborroa aurrez aurre kontrastatu zen Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Kohesioaren arloko batzorde arteko gunea osatzen duten erakunde batzuekin, bai eta online ere, erakundeei bidalitako inprimakien bidez. Ekarpenei horiei esker, gida berrikusi eta aberastu ahal izan da, azken dokumentua osatu arte.

1\_ Gida honen egileek eskerrak eman nahi dizkiete material hau egiteko hainbat unetan parte hartu duten erakundeei, egindako ekarpenei eta kontrasteari eskainitako denboragatik.

## Nola hurbildu gida honetara

Garapen teorikoari dagokionez, interseksionalitatea oso kontzeptu zabaltzat har daiteke; izan ere, badirudi dena egitera behartzen gaituela, eta dena aldi berean, gainera. Gai honen konplexutasuna kontuan hartuta, huts egiteko beldurra sortu daiteke, edo ekintzarik ez egitea ekar dezake, teoriatik (non dena ondo egokitzen den) praktikara igarotzean “hanka-sartzeak” saihesteko; izan ere, praktikara eramaterakoan ziurgabetasuna, gatazka eta erabaki zailak agertzen dira. Teoria (definizioz, garbia eta segurua da, bukatutako zerbait) praktikarekin (ziurgabetasuna, gatazka eta erantzun ezak sartzen dira hor) “zikintzeko” beldur horrek nolabaiteko paralisia sor dezake.

Horregatik, gida hau erreminta-kutxa gisa planteatzen dugu, erakunde bakoitzak bere testuingurura eta beharretara egokitu dezan. Interseksionalitateak izua sortu dezake izan daiteke orain arte egindako guztiaren osoko zuzenketa gisa hartuta hurbiltzen bagara horretara, edo desoreken behin betiko irtenbide gisa hartzen badugu. Horregatik, gida honetan erabaki dugu interseksionalitatea malgutasunez eta erakunde bakoitzaren testuinguruak, denborak eta prozesuak errespetatuz praktikan jartzea bideratu dezaketen hainbat jarraibide planteatzea.

## Gidaren egitura

Hastera zoazen ibilbideak funtsezko bi une ditu. Lehen zatian, interseksionalitatearen alderdi teorikoa txertatu dugu: gida honetan nola ulertzen dugun eta interseksionalitatera hurbiltzen garenean kontuan hartu beharreko ideia nagusi batzuk. Bigarren zatian, interseksionalitatea praktikara eramateko gako batzuk ematen ditugu. Gidaren amaieran, glosategi bat gehitu dugu, dokumentuan letra lodiz agertzen diren termino batzuen definizioekin.

**Nola ulertzen dugu  
intersektionalitatea?**



Zer da interseksionalitatea?: “Guretzat, ez da aplikatu beharreko teoria bat, emakume ijito gisa dugun errealitatea baizik. Gure bizitzak ulertzeko eta zeharkatzen gaituzten **zapalkuntzen** aurka borrokatzeko esparrua da”, esan digute Euskadiko Emakume Ijitoen Elkartetik (AMUGE).

Definizio horretatik bi ideia nagusi nabarmentzen dira interseksionalitatearen arloan egin diren ekarpen teoriko-praktikoetan: bizitako esperientziarekin duen lotura eta gizartea eraldatzeko tresna gisa duen orientazioa.

Pertsona askoren bizipenetan, **sexismoa, arrazakeria, xenofobia, klasismoa, ijitoen aurkako jarrera, kapazitismoa edo homofobia** aldi berean agertzen dira. Aldi berean pairatzen dituzte beren identitateetan eta desorekazko esperientzia zehatzetan. Ikuspuntu horretatik, interseksionalitateak desoreken bizipen konplexua izendatzen du. Konplexua da, hainbat zapalkuntza-sistemaren arteko elkargunean kokatzen delako. Mari Evans (2004) poeta afroamerikarrak honela azaldu zuen: “ez naiz nire izatearen zati bat. Ezin naiz pertsona beltza izan eta emakume ez izan, eta ezin naiz emakume izan lesbiana izan gabe... Jakina, nire bizitzan beti egongo da jendea, eta beti egon da, esango didana ‘Beno, definitu zeure burua halakotzat’, nire beste alderdiak alde batera utzita. Hori egitea injustizia da norberarentzat.”



Mari Evansen testigantzak generoa, arraza eta sexualitatea bereizteko zailtasuna erakusten du, banaezinak diren bere identitatearen hiru “alderdi” diren aldetik. Konplexutasun hori ez da soilik norberak bere burua ulertzeko moduan agertzen, baita pertsonen desorekazko hainbat egitura daudelako jasaten dituzten oztopoetan ere.

1991n, Kimberlé Crenshaw legelariak “egiturazko interseksionalitatea” terminoa proposatu zuen, indarkeria sexista jasaten zuten emakume afroamerikarren bizipenetan eta esperientzietan sexismoak eta arrazakeriak aldi berean duten eragina izendatzeko. Kontzeptu horrekin adierazi nahi zuen sexismoaren eta arrazakeriaren arteko bidegurutzean zuten posizio espezifikoaren ondorioz, emakume horiek genero-indarkeriako esperientzia “kualitatiboki desberdina” bizi dutela emakume zuriekin alderatuta. Arazo horrekin lotuta, adierazi zuen politika publikoen agendek eta indarkeria sexisten aurkako gizarte-mugimenduek ez zutela barnean hartzen konplexutasun hori. Eta kontzeptu hau erabili zuen erantzun falta horri izena jartzeko: “interseksionalitate politikoa”.

“Interseksionalitate politikoak” agerian uzten du hainbat instituziok eta erakundeek hainbat desoreka-ardatzetan bakoitzak bere aldetik esku hartzeko duten joera; praktikan, ardatz horiek batera jarduten dute, eta desorekazko esperientzia konplexuak sortzen dituzte. Erakundeok aurrera eramaten duzuen praxitik abiatuta, interseksionalitatea ulertzeko modu horrek gure begiratzeko eta esku hartzeko moduak berrikustera gonbidatzen gaitu, pixkanaka konplexutasun hori integratzeko. Izan ere, batzuetan, bidegabekeriak gertatzen dira baita ere desorekazko hainbat egituraren arteko elkarre-ragina kontuan hartzen ez duten esku-hartzeen ondorioz.

Adibidez, Samurrak elkarteko Aritz Resinesek dioenez, “adineko LGTBI pertsonak ikusezinak dira egoitza publikoetan”. Kale Dor Kayiko elkarteko Baby Garciak azaldu duenez, “ospitaleak ez daude ijitoen kulturaren beharretara egokituta, ez eta Euskal Herrian elkarren ondoan bizi diren beste kultura batzuen beharretara ere”<sup>2</sup>. Zerbitzu publikoetan eskaintzen den arretan aniztasuna aintzat hartzeko erakundeak egiten ari diren aurrerapenak eta ahaleginak gorabehera, bide luzea

---

2\_Lekukotasunak hemen daude eskuragarri: <https://www.bizkaia.eus/es/tema-detalle/-/edukia/dt/12623>



dago oraindik egiteko. Kasu horiek adierazten dutenez, adin-ekoen edo ijitoen beharretan beste desoreka-ardatz batzuk gehituz pentsatzeak, hala nola sexu-orientazioa edo arraza, agerian uzten ditu kolektibo batzuek osasunerako edo zain-tzarako eskubidea lortzeko dituzten zailtasunak.

Hurrengo testigantzan, genero-identitateagatik errefuxiatuta-ko brasildar jatorriko pertsona batek bere prestakuntzarekin bat datorren lan bat lortzeko zailtasunei buruz hausnartzen du:

“Erizaintzako prestakuntza dut, Brasilen hamar urtez lan egin nuen. Baina ezin duzu zure prestakuntzaren araberrako lana egin, homologazio-prozesuan dagoelako. Unibertsitateko homologazio-prozesua amaitzeko bi urte behar izaten dira normalean, eta, ondoren, osasun-arloko master bat egin behar duzu. (...) Beraz, gutxienez lau urte behar dira zure prestakuntzaren araberrako lan bat egin ahal izateko”.<sup>3</sup>

Dituen zailtasunetan pentsatzen duenean, emakume honek haxe dio: “ez da etorkina izatea soilik, etorkina, emakumea, beltza, trabestia... izatea da. Gauza asko dira”.

Kasu horiek erakusten dute interseksionalitatea desorekei begiratzeko, horiei buruz gogoeta egiteko eta, batez ere, horietan jarduteko gonbidapena dela, kontuan hartuta “gauza askok” zailtzen dutela bizitzea merezi duen bizitza bat izatea. Gida honek ibilbidean aurrera egiteko zenbait jarraibide jasotzen ditu. Horietara jo aurretik, ikuspegi hori eta horrekin lotutako esku-hartzea testuinguruan kokatzen lagun dezaketen gako batzuk jaso ditugu.

---

3\_ Hemen jasotako lekukotasuna: “La vida en modo difícil: Ser una persona refugiada, desde una mirada interseccional”, Zehar-Errefuxiatuekin elkar-teak egina. Hemen ikus daiteke bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=WhqbxXhC50A>


Gida honetan, interseksionalitatearen praktikaz hitz egiten dugunean, lau ideia ditugu abiapuntu.

## Nondik abiatzen gara?

### Interseksionalitatearen genealogia aitortzea

Lehenengoak interseksionalitatearen genealogiarekin du zerikusia. Ikuspegi interseksionala feminismoaren eta arrazakeriaren aurkako ibilbide politiko eta militanteetatik elikatzen da.

“Manifestu feminista beltz bat” mugarri garrantzitsua da genealogia honetan. Manifestu hori Combahee River Collective Bostongo talde feminista beltzak idatzi zuen 1977an<sup>4</sup>. Ekintzaile horiek “elkarri lotutako zapalkuntza-sistemen” kontzeptua erabiltzen dute emakume afroamerikarrek heterosexismoak, arrazakeriak eta kapitalismoak beren bizitzetan aldi berean izandako eraginaren ondorioz dituzten zailtasunak salatzeke. Horregatik, “integratutako” zapalkuntzen aurkako analisi eta borroka baten alde egiten dute, “zapalkuntza-sistema nagusiak elkarri lotuta dauden ideian oinarrituta” (2012:75) baitaude.



(Barbara Smith, Beverly Smith eta Demita Frazier, manifestuaren egileak)

Feminismo Beltza interseksionalitatearen genealogian funtsezko pentsamendu- eta aktibismo-gunea dela onartzen badugu, ezin dugu alde batera utzi arrazismoaren aurkako kritikak esparru horren garapenean duen zentraltasuna. Alde horretatik, egile, ekintzaile eta erakunde batzuek kritikatu dute arraza eta arrazakeriaren aurkako ikuspegia desagertu egiten direla termino horren baitan.

---

4\_ Talde horren izena Harriet Tubman ekintzaile abolizionistak 1863an Hego Carolinan gidatutako gerrilla-ekintza batean oinarritzen da. Ekintza horri esker, 750 esklabo baino gehiago aske geratu ziren.

Sirma Bilgek (2013) adierazi du interseksionalitatea “zuri-tzen” joan dela garatzen joan den neurrian. Horrela, Estatu Batuetako eta Europako azterlan feministen testuinguruan interseksionalitateak izan duen garapenean arraza bazter gelditu dela kritikatzeko du. Ikuspegi interseksionalean arrazak duen garrantziarekin lotutako beste kezka batzuk deserosotasun handiagoa sortzen duten beste hitz batzuk ordezkatzeko dituen kontzeptu gisa erabiltzeko joerarekin lotuta daude. Alde horretatik, Sara Ahmedek (2012) “irribarre” baten irudia erabiltzen du kontzeptu atseginagoek, hala nola *aniztasun* edo *interseksionalitate* kontzeptuek beste hitz liskartsuago batzuen aurrean, hala nola arrazakeria, sexismo edo klasismo bezalako hitzen aurrean sortzen duten efektua deskribatzeko. Funtsezkoa da arrisku horiek kontuan izatea, interseksionalitatearen potentzial kritikoa ez galtzeko.

### Justizia sozialerako tresna politikoa

Genealogia horiek erakusten dute interseksionalitatea tresna politiko bat dela: hainbat bidegabekeria mota ikusaraztea eta horiei aurre egitea bilatzen du. Desorekak sortzen dituzten **botere-harremanen** diagnostiko kritiko batetik abiatzen da, eta horiek eraldatzea du helburu, botere-harreman desorekatuak erreproduzitzen dituzten gizarte-bizitzako hainbat eremutan esku hartuz.

Zer eremuz ari gara? Patricia Hill Collinsek (2019) lau “botere-eremu” bereizten ditu. Eremu horiek edozein pertsonaren egunerokoan daude, eta desorekak erreproduzitzen dituzte, modu sotilagoan edo agerikoagoan: eremu estrukturala edo politika publikoena (adibidez, legeak eta estatuko beste ekintza batzuk), eremu kulturala (adibidez, komunikabideen edo ikus-entzunezko produktuen bidez zabaldutako mezuak),

arau formalek eta informalek osatzen duten diziiplina-eremua (adibidez, hainbat praktika sozialek erreproduzitzen dituzten aurreiritziak eta estereotipoak), eta pertsonen arteko harremanen eremua (adibidez, pertsonok nola erlazionatzen garen).

Gizarteko esku-hartzean ere, ikuspegi intersektionalak abiapuntua izan beharko luke, erakundeek eremu horietan gertatzen diren botere-harremanei buruz hausnartzeko eta horrelakoak identifikatzeko edo esku hartzeko.



---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

## **Litekeena da interseksionalitatea praktikan jarri izana, izendapen hori eman gabe.**

Hainbat problematika lantzen dituzuen erakundeen artean, litekeena da interseksionalitatearen ideia kontzeptu hori iritsi aurretik erabiltzea. Bidegabekeria gisa bizi izan zenustelako, zuen erakundeetan esku hartzeko arloen edo ardatzen arreta gaituzten duten desoreka-egoerak ezagutzen zenituztelako, edo interseksionalitatearen “hizkuntzatik” oso hurbil dagoen sentsibitatea duzuelako lanean. Adibidez, pertsona ardatz duen arreta-eredu bat aplikatzeaz ari gara, edo entzuketaren eta enpatiaren bidez egindako lanaz ere, bai eta baliabide batzuk horien beharra duten pertsona guztiengana ez iristeak sortzen duen kezkaz ere.

Horregatik, askotan entzuten dugu interseksionalitateak “antolatu” egiten duela edo “izena jartzen” diola pertsona eta erakunde askoren errealitatean eta egiteko moduan lehendik zegoen horri. Gida hau zuen esperientzia eta praktika osatzeko baliagarria izatea gustatuko litzaiguke, bai eta helburu horretan lagungarri izango zaizkizuen elementu berriak ekartzeko ere.

## **Egiten ari garena sakontzeko eta hobetzeko tresna bat**

Idea hau garrantzitsua da: interseksionalitateak ez luke izan behar egun dauden ikuspegi eta tresnak ordezkatzeko dituen ikuspegi bat, hala nola genero-ikuspegia edo kulturartekotasunaren ikuspegia. Uste dugu interseksionalitatearen indarra ikuspegi horiek zabaltzeko eta aberasteko duen baliagarritasunean datzala, eta baliagarria da baita ere agian nahi bezala funtzionatzen ez duena berrikusteko.

Alde horretatik, baliteke guretzat kezagarria izatea desoreka-ardatz guztietara ez iristea. Izan ere, hori ezinezkoa da gehienetan, baliabideak mugatuak direlako, eta entitate bakoitza desoreka modu zehatz batean espezializatuta dagoelako. Gure ustez, interseksionalitateak, batez ere, lantzen ari garen ardatzean sakontzeko gonbita egiten du, eta ikusten ez dugunaren aurrean adi egotera eta beste desoreka mota batzuekin egon daitezkeen elkarreraginak identifikatzeko zehaztasun handiz jokatzera bultzatzen gaitu.

Abiapuntu horiek argitu ondoren, interseksionalitatearen alderdi teoriko batzuk adieraziko ditugu, praktikarako lagungarriak izan daitezkeenak.

## Interseksionalitatea: galdera irekia

Honela definitzen dute interseksionalitatea Patricia Hill Collins eta Sirma Bilge soziologoek:

“Interseksionalitatea munduaren, pertsonen eta giza esperientzien konplexutasuna ulertzeko eta aztertzeko modu bat da. Oso gutxitan esan dezakegu bizitza sozial eta politikoko gertaerak eta baldintzak edo norberaren bizitzakoak faktore bakar batek moldatzen dituela. Faktore askok eta askotarikoek baldintzatzen dituzte, eta elkarri eragiten diote. Gizarteko desorekari dagokionez, pertsonen bizitza eta boterearen antolaketa ez ditu banaketa sozialaren ardatz bakar batek zehazten, arraza, generoa edo klasea izan, elkarren ondoan aritzen diren eta elkarri eragiten dioten ardatz askok baizik. Interseksionalitateak, tresna analitikoa den heinean, aukera ematen die pertsonen munduaren eta beren baitako konplexutasunera hobeto iristeko.” (2016:2)

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

Definizio horrek ikuspegi interseksionalaren abiapuntuetako bat eskaintzen digu, lehen ere aipatu duguna: bidegabekeria-egoera asko konplexuak dira, eta ezin dira ulertu, ezta aurre egin ere, desoreka-iturri bakar bat kontuan hartuta.

Konplexutasun horretara iristeko tresna analitiko gisa hartuta, egile horiek azpimarratzen dute interseksionalitatea ez dela desorekek nola funtzionatzen duten azaltzen duen teoria huts bat: ez du aukerarik ematen horiek aurreikusteko, eta ez ditu ematen erabateko erantzunak edo irtenbideak. Horren ordez, testuinguru jakin batean desoreka-egitura batzuk modu jakin batean erlazionatzeko aukera adierazten duen ikuspegia da, ondorio espezifiko batzuk sortuz. Horregatik, Sirma Bilge (2010) edo Ann Garry (2011) egileek azpimarratzen dute interseksionalitatearen aberastasuna desoreka-egoeretara egindako hurbilketa kualitatiboan datzala, eta ez kuantitatiboan: ez gara desoreken batuketa batez ari, arreta hainbat ardatzen arteko erlazionatzeko moduan eta elkarri eragiteko moduan jartzeaz baizik. Horixe da ikuspegi monofokalaren, askotariko desoreken ikuspegiaren eta ikuspegi interseksionalaren arteko aldea ulertzeko funtsezko ideietako bat.

Duela ia bi hamarkada, Ange-Marie Hancock politologo estatubatuarra (2007) bereizi egin zituen interseksionalitatea eta desoreketara hurbiltzeko beste bi aukera: ikuspegi monofokala eta askotariko desoreken ikuspegia. Berrikiago, Gerard Coll-Planasek eta Roser Solà-Moralesek (2019) Hancocken proposamena egokitu dute, eskema hau planteatuz.

Taula. Ikuspegi monofokalaren, askotariko desoreken ikuspegiaren eta ikuspegi interseksionalaren arteko aldea.

Iturria: Coll-Planas eta Solà-Morales. 2019: 14

**Ikuspegi monofokal batetik**, indarkeriaren biktimei arreta ematera bideratutako esku-hartzeek generoa hartzen dute desabantaila-ardatz bakartzat, eta, beraz, ez dituzte kontuan hartzen emakumeen arteko barne-desberdintasunak indarkeriari aurre egiterakoan. Kasu batzuetan, generoarekin bat egiten duten beste desoreka-ardatz batzuk aintzat ez hartzeak mugatu egin dezake esku-hartze horien irismena, emakume batzuk kanpoan utziz.

**Askotariko desoreken ikuspegitik**, generoaz gain, beste ardatz batzuk ere hartzen dira kontuan. Erabiltzen ari garen adibidean, generoari migratzaile izaera gehitu geniezaioke, eta, hortik abiatuta, genero-indarkeria jasaten duten emakume migratzaileei arreta emateko neurri espezifikoak diseinatu. Ikuspegi horretatik, bi desoreka-ardatz horien arteko erlazio bat onartzen da a priori. Generoa eta migratzaile-izaera batera lantzen dira, eta emakume migratzaileak antzeko beharrak dituen talde nahiko homogeneo gisa hartzen dira.

Azkenik, **ikuspegi interseksionala** izango lukeen esku-hartze batek ez luke talde-ikuspegia hartuko; hau da, emakume migratzaileak talde gisa hartu ordez, hainbat desoreka-ardatzek bat egiten duten testuinguru zehatzak hartuko lituzke kontuan. Emakume migratzaileen artean, desberdintasunak egon daitezke haien administrazio-egoeran, prestakuntza-mailan, haien jatorrizko komunitateekiko loturan edo hizkuntzaren mendetasunean, eta emakume horien arteko alde horiek mugatu egiten dituzte, hainbat modutan mugatu ere, genero-indarkeriako kasuak salatze eta artatzeko aukerak. Hala ere, ardatz horiek ez dira beti modu berean eta ondorio berberekin erlazionatzen. Horregatik, ardatz horien arteko erlazioa ez da besterik gabe onartzen, eta galdera irekia egiten da, testuinguruaren arabera.

Erakutsi berri dugun bereizketa baliagarria da, ordenatzen laguntzen digulako, baina interseksionalitateak dakarren aberastasuna sinplifikatzeko arriskua egon daiteke hainbat desoreka-ardatzaren arteko erlazioa pentsatzerakoan. Zenbait metafora proposatzen ditugu interseksionalitatearekin batera doazen hainbat planteamendu ilustratzeko.

## Interseksionalitatean pentsatzeko metaforak

### Bidegurutzea

Kimberlé Crenshaw abokatu feminista beltzak 1980ko hamarkadaren amaieran proposatu zuen interseksioaren edo bidegurutzearen metaforari zor dio izena interseksionalitateak.

1989an, legelari estatubatuarrek analisi juridiko bat argitaratu zuen, eta, analisi horretan, bidegurutze batean gertatzen den istripuaren metaforaren bidez, arrazakeriaren eta sexismoaren baterako ekintza azaldu zuen. Emakume beltzak izateagatik beren lanetik bota zituzten emakume afroamerikar batzuen kasua da azterketa horren abiapuntua. Errepideko elkargune edo interseksio baten erdian dagoen pertsona



batek jasaten duen harrapaketa “bikoitzarekin” konparatzen du Crenshaw diskriminazio hori: bi errei desberdinetatik datozen bi autok (“sexua” eta “arraz”) aldi berean egiten dute talka oinezkoaren aurka, eta zauritu egiten dute. Aldi berean harrapatzen dutenez, ezinezkoa da zenbait zauriren jatorria argitzea: inpaktu bikoitzaren ondorioz gertatu dira. Babes-  
teko edo laguntzeko arrazoi bat izan beharrean, zauritutako pertsonaren aurka jokatzeko du inguruabar horrek. Kontatzen digun istorioan, istripuaren ardura egozteko gidari bakarra ez egoteak esan nahi du inork ez duela erantzukizuna bere gain hartzen: ez direnez gai argitzeko zein mediku-asegururi egotzi behar dioten gertatutakoa, inork ez du bere gain hartzen zauritutako pertsona.

Bidegurutzearen irudiaren bidez, metafora honek oso argi erakusten du desoreka-ardatz desberdinen aldi bereko ekintza. Agerian uzten du, halaber, desoreka-egoeran dagoen pertsona bati arretarik ez eskaintzeak dakarren bidegabe-  
keria, ez garelako gai kausa bakar bat identifikatzeko. Baina larriena zera da, Kimberlé Crenshaw (1989) epai judizial batzuetatik abiatuta idatzi zuela metafora hau, ez baitzieten erantzuten sexuaren eta arrazaren araberako aldi bereko diskriminazioa alegatzen zuten emakumeen eskaerei.

### **Sotoko tranpola**

Diskriminazioaren aurkako sistemei buruzko kritika hori beste modu batzuetara ere azal daiteke, sistema horiek funtzio-  
natzeko desoreka-ardatz bakarra onartzen duten kasuetan. Beste pasarte batean, Kimberlé Crenshaw (1989) soto bati buruz idatzi zuen; soto horretan, hainbat desoreka-ardatzek zeharkatzen dituzten pertsonak pilatzen dira: generoak, klaseak, arrazak, jatorriak... Pertsona horiek elkarren gainean pilatuta daude. Imajinatu ezazu piramide moduko bat, non beheko gorputzek, desoreka-ardatz ugari zeharkaturik, goiko



gorputzei eusten dieten; goiko gorputz horiek ardatz bakar batek zeharkatzen dituenak izango lirateke. Pertsona horien buruen gainean justu sabaia dago, eta, gero, sotoaren gainean, inolako desoreka-egoerarik jasaten ez duten pertsonak daude. Sotoaren azpian dauden pertsonak goiko aldera sartu ahal izateko, tranpola bat eraikitzea erabakitzen dute. Mekanismo horrek arazo bat du, ordea: piramidearen goiko aldean kokatuta dauden sotoko pertsonak bakarrik iristen dira. Hau da, desoreka-ardatz bakarra “aitortu” zaien pertsonak soilik igotzen dira goiko solairura: Crenshawk aztertzen dituen kasu judizialetan, emakume zuriak dira pertsona horiek, generoaren arabera diskriminazioa aitortzen zaienak, bai eta gizon beltzak ere, arrazagatiko diskriminazioa aitortzen zaienak.

Irudi hori bidegurutzearen aurreko metaforaren parekoa da. Sototik egiten den “irteera selektibo” horrek gogorarazten digu Crenshawk kritikatzeko duen desorekekiko hurbilketa monofokalak mugatuak direla: eskubideen eskuratzeko modu bakarra gizon heterosexualek gorpuzten duten genero-arauarekiko salbuespena da, edo pertsona zuriek gorpuzten duten arraza-arauarekiko salbuespena. Beste era batera esanda, abokatu honek salatzen duen egoeran, sistemak desbideratze bakarra onartzen du eskubidearen **subjektu normatiboarekiko** (gizon zuria), eta eskubideak eskuratzeko aukera sexismoa pairatzen duten baina zuriak diren emakumei soilik ematen die, edo arrazakeria pairatzen duten gizonei.

## Kamioi artikulatua

Desoreka-ardatz desberdinen arteko erlazioan pentsatzeko beste irudi iradokitzaile bat da kamioi artikulatuarena, Patricia Hill Collinsek proposatua (2019), Stuart Hall teoriari kritikoaren lanetik abiatuta. Pentsatu kamioi batean, non



aurrealdea edo kabina eta atzealdea edo atoa elkarri lotuta dauden, askatu daitekeen mekanismo batekin. Irudi hori baliagarria izan daiteke jabetzeko bateragarria dela desoreka-ardatz desberdinen arteko elkargunean edo intersektzioan pentsatzea, eta, aldi berean, hainbat sistemaren (klasismoa, sexismoa edo arrazakeria, adibidez) autonomian pentsatzea. Hau da, elkarrengandik bereiz daitezkeen sistemak dira. Kamioia osatzen duten piezak bere horretan mantentzen dira, baina artikulatzeko aukerak, bata bestearekin lotzeko modua, asko dira. Eta lotura horietako bakoitzak kamioi desberdin bat sortzen du. Irudi hori desoreken esparruko irakurketara eramanda, lotura horiek testuinguru jakin batzuetan nola gertatzen diren identifikatzeko gonbita egiten digu intersektzionalitateak, sistema bakoitzaren espezifikotasuna aitortuz.

### **Galleta bat egitea**

Ivy Kenek (2008) desoreka-ardatzaren arteko elkargunea edo intersektzioa eta galleta bat egiteko prozesua alderatzen ditu. Badakigu, nahastean, galletaren osagaiak (azukrea, gurina, irina, txokolatea) eraldatu egiten direla. Irudi hori oso baliagarria da desoreka-ardatzak elkarrekin eratzen direlako ideian pentsatzeko: hainbat ardatz “nahastean”, hala nola generoa, jatorria eta arraza, elkar eraldatzen dute. Esanahiak eta efektuak edo ondorioak aldatu egiten dira elkarrekin erlazionatzen direnean.



## Sagar baten propietateak

Maria Rodó-Zaratek (2021) desoreka interseksionalen funtzionamendua eta sagar baten ezaugarriak alderatzen ditu. Sagar bat hainbat propietateren arabera bereizi dezakegu: zaporea, testura, kolorea edo tenperatura. Sagar bat berdea, gozoa, gogorra eta hotza izan daiteke. Ezaugarri horiek bereizgarriak dira, baina elkarri lotuta daude: sagar berde baten azidotasuna antzeman dezakegu, edo sagar gorri baten gozotasuna. Gauza bera gertatzen da pertsonekin: generoa, jatorria, adina... propietate bereizgarriak dira, baina elkarren artean lotuta daude ezinbestean.

Bestalde, sagarraren kolorearekin, zaporearekin, tenperaturekin edo testurarekin lotutako propietateak ez dira konstanteak. Izan ere, aldatu egin daitezke: sagarra labean sartzen badugu, sagarraren tenperatura igo egingo da, bigundu egingo da eta gozoago bihurtuko da. Kasu horretan, tenperaturak sagarraren gogortasuna eta zaporea eraldatzen ditu. Desoreken esparruko esperientziara eramanez, pentsa dezakegu, adibidez, sexismoaren bizipena beste “propietate” batzuek baldintzatzen dutela, hala nola adinak. Bereizita aipatu arren, biek elkarri eragiten diote: 3 urteko neskato batek bizi dezakeen sexismoa eta 90 urteko emakume batek bizi dezakeena desberdinak dira. Generoak eta adinak bat egiten dute bi kasuetan, baina ondorio desberdinekin; izan ere, “emakume batek hiru, hogeita hamar edo laurogeita hamar urte izan ditzake, baina beti izango du adin jakin bat, eta adinak baldintzatuko du sexismoak nola eragingo dion” (Rodó-Zarate, 2021:39).

Azkenik, desorekak sagar baten propietateen bidez alderatzeak aukera ematen du pentsatzeko, kolorerik, zaporerik edo gogortasunik gabeko sagarrik ez dagoen bezala, ez dagoela gorputzik edo esperientziarik generorik, klaserik, arrazarik, jatorririk eta abarrik gabe. Gizakion bizitzaren



propietateak dira, eta hor daude beti. Garrantzitsua da hori abantaila- eta **pribilegio-egoerak** pentsatzeko orduan: askotan, ahaztu egiten zaigu gizonek generoa dutela, edo pertsona zuriek arraza bat dutela. Pertsona guztiok ardatz edo "propietate" desberdinak zeharkatzen gaituzte, nahiz eta, testuinguruaren arabera, ardatz batzuk ikusezinak izan.

### **Hari-mataza nahasi bat**

Lucas Platerok (2012) hari-mataza nahasi baten irudiarekin konparatzen du interseksionalitatearen konplexutasuna. Interseksionalitatea nahastutako harien bola bat balitz bezala irudikatzen dugu, korapiloz betea. Nahiz eta oso konplexua izan, askatu egin daiteke. Gida honetan, korapilo horiek poliki-poliki askatzen joateko jarraibide batzuk eskaini nahi ditugu.

---

### **Nola ulertzen ditugu desoreka-kategoriak?**

Gizarte-kategoriak, hala nola emakumea, gizona, migratzailerak... fikziozkoak dira, eta ingurune jakin batean ulergarriak izateko eraikitzen ditugu. Alde batetik, gizarte-kategoriak behar ditugu elkar ulertzeko, elkar ezagutzeko eta errealitatea ulertu eta horren gainean jarduteko. Horregatik, horietako asko desoreka-kategoriak direla esaten da, eta ez soilik gizarte-kategoriak. Aldi berean, kontuan izan behar dugu kategoria horiek esperientzia konplexuek sostengatzen dituztela, eta askotan esperientzia horiek gainditu egiten dutela edozein sinplifikazio-saiakera. Beharrezkoak dira, eta, aldi berean, motz geratzen zaizkigu, egonkor, finko eta iraunkortzat hartzen baditugu.

Gizarte-kategorien ulermen estatikoan oinarrituta lan egiten badugu, alde aurretik zehaztutako ezaugarri eta problematika finko batzuk esleituz, arazoak eta esperientziak homogeneizatzeko, estigmatizatzeko eta testuingurutik ateratzeko arriskua dugu. Beren burua emakume gisa identifikatzen duten



pertsona talde bati galdera hau egiten badiogu: zer da zue-  
tako bakoitzarentzat emakume izatea?, elementu komunak  
agertuko dira, baina baita desberdinak ere. Baliteke horietako  
batzuek ezaugarri batzuk identifikatzea, eta beste batzuentzat  
ezaugarri horiek zentzurik ez izatea edo oharkabean pasatzea.  
Interseksionalitateak aniztasun hori ikusarazten laguntzen du.  
Hala ere, hainbat jarrera daude kategoriak kontzeptualizatzeko  
moduari eta horien arteko erlazioari dagokionez.

Aurreko atalean azaldutako metafora batzuek aukera ematen  
dute desoreka-ardatzak edo -kategoriak entitate bereiziak  
direla pentsatzeko, bai eta egoera jakin batzuetan bat egiten  
duten entitateak direla pentsatzeko ere. Horixe gertatzen da  
kamioi artikulatuaren edo bidegurutzearen irudiaren kasue-  
tan, adibidez. Beste metafora batzuei esker pentsa dezake-  
gu hainbat kategoriaren zentzua eta ondorioak, hala nola  
genero, jatorria edo adinarenak, elkarren artean eraldatzen  
direla, galleta bat egitean osagaiak nahastean edo sagar  
baten propietateekin gertatzen den bezala. Modu horretan,  
desoreka-kategoriak funtsezkoak ez direla ulertzen dugu.  
Horrekin esan nahi dugu “emakume” edo “migratzaile” kate-  
goria askotarikoa dela, eta beste baldintzatzaile batzuek ere  
zeharkatzen dutela, hala nola jatorriak, arrazak edo adinak,  
besteak beste.

Interseksionalitatearen alderdi problematiko bat zera da, ar-  
datzen arteko erlazioan gertatzen dena azpimarratzean, deso-  
reka-kategoriek zentraltasuna galtzeko arriskua dagoela. Gure  
ikuspegitik, tentsio hori interseksionalitateari atxikita dago:  
generoa, gizarte-klasea, arraza eta antzeko kategoriak ardatz  
isolatuak ez direla ulertaraztea, ez eta funtsezkoak ere, eta  
ez ahaztea zeinen garrantzitsua den horiek izendatzea, beren  
borroak eta genealogia propioak aitortzea, bai eta politika  
eta esku-hartze espezifikoetan duten erabilgarritasuna ere.

Intersekzionalitateari buruzko sarrera hau amaitzeko, gida honen espiritua zeharkatzen duten hiru ideia nagusi azpimarratu nahi ditugu.

## Amaitzeko, hiru ideia

Lehenik eta behin, **intersekzionalitatea desoreken Kilker Hiztun moduko bat delako ideia**. Ahots horrek etengabe galdetzen digu nor ari garen uzten gure esku-hartzetik kanpo. Funtsezkoa da galdera hori egitea eta erantzuten saiatzea, halaber, zer botere-posiziotatik esku hartzen dugun eta zer imajinario eta egiteko modu erreproduzitzen ditugun ikusarazteko. Pentsa dezagun, adibidez, kultur jarduera batean. Nor dago erreproduzitzen ari garen kulturaren ideiarekin atzean?; zer hizkuntza hitz egiten du?; eta zer adin du?; erreferentziatzeko zer komunitate du atzean?; eta zer jatorri du?



Bigarrenik, intersekzionalitatea **ez da irtenbide bat, zerumuga bat baizik**: berrikusiz, zalantzan jarritz eta galderak eginez aurrera egitera gonbidatzen gaitu. Helmugako puntu komun bat baino gehiago, praktika berriak eta egiteko modu berriak inspiratu ditzakeen ikuspegi sortzaile bat da.

Azkenik, intersekzionalitatearen **ikuspegia sentibera da testuinguruarekiko**. Gida honek zenbait jarraibide jasotzen ditu, jakinda erakunde bakoitzak bere ibilbidea eta bere baliabideak dituela. Erakunde bakoitza desberdina da, eta intersekzionalitatea praktikan jartzeak esan nahi du, hain zuzen ere, onartu behar dugula erakunde guztiak ez direla berdinak. Horregatik, bere erakundearen testuingurutik abiatzeko gonbita egiten diogu gida honetara hurbiltzen den orori. Testuinguru jakin batean kokatuta, hobeto ulertzen dugu tentsio sortzailea, zer nahi dugun, zer gerta daitekeen eta zer egin daitekeen pentsatzen dugunean.

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

# Intersekzionalitatea praktikara eramateko jarraibideak



Adierazi dugunaren ildotik, interseksionalitatea tresna gisa ikusi behar da: teoria soil gisa ulertzeak ez du zentzurik praktikarik gabe.

Euskaltzaindiaren arabera, jarraibide bat zerbait lortzeko edo gauzatzeko jarraitu beharreko bide edo arau orokorra da. Hala, ondoren, hainbat jarraibide emango ditugu “erreminta-kutxa” gisa erabiltzeko eta interseksionalitatea praktikara eramateko orientabide gisa balio izateko.

Ez dago ezarritako ordenarik, eta ez dira “jarraibide guztiak bete behar” interseksionalitatea aintzat hartu ahal izateko. Jarraibideen artean hierarkia bat ezartzea saihestu dugu, ez baitugu uste batzuk besteak baino garrantzitsuagoak direnik. **1. marrazkian** ikusten dugunez, interseksionalitatera eraman gaitzaketen hainbat bide daude. Erakunde bakoitzak aukeratu dezala zer jarraibide jarri praktikan interseksionalitaterako bere bide berezia eta propioa eraikitzeko.

Baina, nondik hasiko gara? Orientazio gisa eta hainbeste jarraibideren artean ez galtzeko, hiru taldetan antolatu ditugu: orokorrak edo zeharkakoak, erakundeari/elkarteari lotuak, eta, azkenik, proiektu edo jarduera zehatzak abian jartzearekin lotuagoak dauden jarraibideak. Beharren arabera, erakunde bakoitzak aukeratu dezake nondik hasi eta zer jarraibide erabili. Hurrengo taulan, laburpen bat aurkezten dugu. Azalpen batez gain, jarraibide bakoitzarekin batera adibide zehatzak edo gure praktikari buruz hausnartzen lagunduko diguten galderak emango ditugu. Baliteke galdera horietako asko zuen egunerokoan erabiltzea, beste batzuk agian ez, eta gure eguneroko lana zalantzan jartzen eta hobetzen lagunduko digute.

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

## Orokorrak edo zeharkakoak



Desoreka-ardatzen  
arteko lotura



Ziurtzat ez ematea



Etengabe geure  
buruari galdetzea



Testuingurua  
kontuan hartzea



Partaidetza  
esanguratsua



Begirada eta lan  
komunitarioa





## Erakundeari/elkarteari lotutakoak



Barnera  
begiratzea



Gure espazioak,  
metodologiak eta  
hizkuntza bir-  
pentsatzea



Aliantzak erai-  
kitzea eta sareko  
lana

## Proiektu edo jarduera zehatzekin lotutakoak



## Proiektuak proble- matiken arabera diseinatzea



## Entzute aktiboa



Denborak eta prozesuak "sumotelean"


## Orokorrak eta zeharkakoak

Une oro kontuan hartu beharrekoak.

### Desoreka-ardatzen arteko lotura

Lehenago aipatu denaren ildotik, desoreka-ardatzek ez dute modu independentean funtzionatzen, bata bestearengandik isolatuta. Gure errealitateak eta beharrak desoreka-ardatz guztiei dagokienez dugun posizioaren emaitza dira, kontuan hartuta ardatz horien arteko elkarreragina konplexua dela.

Bestalde, interseksionalitatearen proposamena ez da desoreka-ardatzak batzen dituen begirada izatea soilik, baizik eta begirada erlazional eta dinamiko bat izatea. Adibidez: nola eragiten du generoak aniztasun funtzionala duen pertsona batengan?; eta modu berean eragiten dio beti eta une oro?; zer testuingurutan du generoak pisu handiagoa?; eta zer testuingurutan txikiagoa?



### Lehenengo adibidea.

Inor ez da etorkina soilik, emakumea soilik edo gorra soilik: pertsona bat, aldi berean, emakumea izan daiteke, Argentinatik migratua, bisexuala, desgaitasunik gabea, etab. Eta pertsona horren posizioaren konplexutasuna kontuan hartzen ez badugu, gerta daiteke emandako erantzuna ez egokitzea guztiz haren arazo edo beharretara.

### Bigarren adibide bat.

Gizarte-klaseari erreparatzen badiogu, konturatzen gara ez dela berdin gorpuzten gizonen eta emakumeen kasuan. Pentsa dezagun **aniztasun funtzionala** duen eta gizarte-klase prekarioa duen pertsona baten kasuan. Familia apal batean aniztasun funtzionala baduzu, oztopoak oso nabarmenak dira: zailagoa da lana lortzea, lagunak egitea, eskolara joatea

edo goi-mailako ikasketak egitea. Horren ondorioz, aniztasun funtzionala gizarte-klasetik bereizita pentsatzea problematikoa izan daiteke. Berdin gertatzen da generoarekin: ez da gauza bera aniztasun funtzionala duen emakume bat edo aniztasun funtzionala duen gizon bat izatea. Biek aurre egin behar dieten zailtasunak oso desberdinak dira, aniztasun funtzionala, kasu honetan, generoak zeharkatzen duelako. Adibidez, desgaitasuna duten emakumeek beren sexualitatearen gaineko tabuak dituen ondorioak pairatzen dituzte: haien desireri buruzko informazio falta eta ikusezintasuna, abusuak edo haien amatasunari buruzko aurreiritziak.

## Ziurtzat ez ematea

Interseksionalitateak esan nahi du gure esku-hartzeetan eta diagnostikoetan ez dela ezer ziurtzat jo behar; aldez aurreko usteak, kontzeptuak edo erabiltzen ditugun tresnak zalan-tzan jarri behar dira.

Askotan, pertsonak behar dutena ziurtzat jotzen dugu, eta orokortzeko joera dugu, adibidez, emakume migratu guztiak berdinak balira bezala, gauza berak beharko balituzte bezala, edo arrazakeriarekin edo **patriarkatuarekin** lotutako arazoen horiei guztiei modu berean eragingo baliote bezala.

Gizarteko ikusmolde eta sinismenak zalantzan jarri behar ditugu, aldez aurretik ez estigmatizatzeke.



## Adibide bat.

Hernaniko (Gipuzkoa) Kulturarteko Plaza Feministak<sup>5</sup> garatutako eraikuntza kolektiborako prozesuan, eztabaidagai izan ziren sukaldea kokatzeko lekua, proiektuan sukaldeari eman

<sup>5</sup> Feminismoaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako espazioa da. Hernaniren eta munduaren eraldaketan alea jartzera dator, eta hausnarketarako,



beharreko garrantzia eta prozesuan parte hartu zuten jatorri desberdinetako emakumeentzat zuten esanahiak eta horren inguruan sentitzen zituzten emozioak.

Bertako emakume feministek sukaldea leku pribatu batekin eta itxialdirako leku batekin lotzen zuten, eta haien ustez, emakumeak historikoki sukaldean baztertu izan dira. Baina emakume migratu batzuentzat sukaldeak etxeko elementu nagusi bat izan behar zuen. Topaketarako, biltzeko eta beren kultura aldarrikatzeko leku segurua. Mari Luz Estebanek, Guilló-Arakastainek eta Luxan-Serranok adierazitakoaren ildotik (2024), ikuspegi interseksionaletik, sukaldeari buruzko eztabaidak aukera eman zuten emakumeek sukaldearekin lotuta zituzten esperientziak zabaltzeko, eta guztientzat esanahi bera duela ziurtat ez jotzeko.



### **Etengabe geure buruari galdetzea**

Interseksionalitatea gure buruari galdera berriak egiteko eta galdera horiek beti gogoan izateko tresna bat da: nor ari gara kanpoan uzten? Zer errealitate ez dugu ikusten edo kontuan hartzen? Oso prozesu sortzailea da, ez da metodo itxi bat, urrats jakin batzuk dituen.

Alde horretatik, interseksionalitatea galdera zailak planteatzeko tresna bat da, erantzun errazik ez duten galderak, gizarteko desoreka mota desberdinen arteko gurutzaketak sortzen dituen ñabarduren konplexutasunaz jabetzeko. Zalantzarik gabe, interseksionalitatea mundu berriak iruditatzeko trapolina da.

Hala ere, errealitatea ulertzeko irrikan, haren konplexutasuna txikiagotu ohi dugu, arazo konplexuak konpartimentuetan

formakuntzarako eta ekintze-tarako erreferentzia gunea izan nahi du. Emakumeen ahalduntze-prozesuak sustatzeaz gain, kultura anitzeko pertsonen topalekua ere bada. Feminismoan aritzen diren eta arrazakeriaren aurka lanean ari diren herri-eragileentzako tokia da; horien arteko sarea eta aliantzak egiteko. Informazio gehiago nahi izanez gero: <https://www.hernani.eus/es/kulturarteko-plaza-feminista>

zatitutako kutxetan egokitzen saiatuz eta erantzun azkar eta errazak bilatuz. Baina, neurri bakarreko kamiseta baten antzera, neurri bakarreko politikak, proiektuak edo irtenbideak pertsona gutxi batzuei bakarrik egokitzen zaizkie.

Horregatik, begirada interseksionalak aurre egin behar diegun arazoek konplexutasuna aitortzen du, eta ez da erantzun azkar eta errazik ematen saiatzen. Politika interseksionalen esparruak ez dira inoiz estatikoak izango; horregatik, hausnarketa eta malgutasuna funtsezko elementuak dira.

### Gogoeta egiteko galdera batzuk:



- Zeinen malguak dira gure lan egiteko moduak?
- Malgutasunez lan egiten dugu, gure proiektuetan elementu berriak sartu, aldatu edo berregin ahal izateko?
- Proiektuetan, zenbat denbora hartzen dugu nor ari garen kanpoan uzten eta zer errealitate ez ditugun aintzat hartzen hausnartzeko?
- Proiektuetatik ikaskuntzak atera ohi ditugu ondorengo proiektuetan txertatzeko?

### Testuingurua kontuan hartzea

Interseksionalitateaz ari garenean, testuinguruak garrantzi handia du. Interseksionalitatea oso praktikoa da, testuingurua kontuan hartzen badugu. Horregatik hitz egiten dugu bere testuinguruan kokatutako interseksionalitateaz.

Gida honetan planteatzen duguna da interseksionalitatea praktikan jartzerakoan testuingurua kontuan hartzeak guxtienez bi onura ekartzen dituela.

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

Alde batetik, interseksionalitatearen dimentsio finitua azpimarratzen du. Hau da, testuinguruari erreparatzen badiogu, ohartuko gara ez dela beharrezkoa zapalkuntza-ardatz guztiei heltzea, egoera bakoitzean nabarmen agertzen direnak detektatzea baizik.

Alde horretatik, Marta Cruells (2015) edo María Rodó-Zárate (2021) egileek desoreka-egoera baten ondorioei begiratzeko estrategia proposatzen dute, arazo batean edo testuinguru jakin batean zer gurutzaketa garrantzitsu gertatzen diren identifikatzeko. Batzuetan, ardatz batek beste baten ondorioak areagotu ditzake.



Marta Cruellsek (2015) haurdunaldia borondatez eteteko debekuari buruz emandako adibidean pentsatuko dugu. Abortatu nahi duten emakume guztiei eragiten die, baina eragin hori handiagoa da atzerrira bidaiatuz abortatzeko baliabide nahikorik ez duten emakumeen kasuan. Kasu honetan, klasearen ardatzak sexuaren ardatzak sortzen duen desoreka indartzen du. Beste batzuetan, ardatz batek beste ardatz baten eragina desagerraraz dezake. Gerard Coll-Planasek eta Miquel Missek (2018) trans pertsonen laneratzeko dituzten arazoei buruz egindako azterlan batean, trantsizioa amaitu zuten trans gizonen aitortu zuten oharkabeen pasatzen zirela beren lan-inguruneetan, hau da, ez zituztela trans gisa identifikatzen. Trans emakumeen kasuan, **passinga** konplikatuagoa da, eta, beraz, itxura maskulinoa genero-identitatearen ardatzak eragiten dituen bazterketak arintzen dituen faktorea da.

Eta, kasu askotan, espazio fisikoak zehazten ditu eragin horiek, Maria Rodó-Zarateren lanek adierazten dutenaren ildotik (2023, 2021). Adibidez, pentsa dezakegu orientazio sexual ez-normatiboak dituzten pertsona batzuentzat ikastetxea edo familia ondoeza ekar dakiekeen lekuak izan daitezkeela,

beren sexu-orientazioa erreprimitzera behartzen dituztelako edo ekintza diskriminatzaileen bidez seinalatzen dituztelako. Ezinegon hori gutxitu edo desagertu egiten da pertsona horiek LGTBI giroko tabernetara edo aktibismoko gunetara joaten direnean, non sexu-orientazioaren ardatza oharkabean pasatzen den. Baina, aldi berean, leku-aldaketa horretan beste desoreka-ardatz batzuk ager daitezke, hezkuntza- edo familia-ingurunean hain nabarmenak ez direnak. Adibidez, gizarte-klasea, pertsona hori langile-klaseko ingurune batetik badator eta LGTBI erakunde batean estatus sozioekonomiko handiagoko pertsonekin militatzen hasten bada.

Testuinguruaren garrantziaren beste alderdi batek zerikusia du kategoriak ulertzeko moduarekin, zehazten dituzten esanahiekin. Beste adibide bat. Clementine Kongoko EDko emakume afrikar bat da. Bi karrera ikasi zituen, eta gobernuarentzat lan egiten zuen gerra zibila hasi zen arte; une horretan, bere herrialdetik laster batean atera behar izan zuen, bere bizitza arriskuan zegoelako. Euskal Herrira iritsi zenean, bere azal-kolorearen ondorio bereizgarriak sentitu zituen: “Ni hemen (Bilbon) beltza naiz, nire herrialdean ez”. Testuinguruaren garrantzia adierazten digu horrek; lekuak zehazten du diskriminazio-ardatz jakin batzuek, hala nola larruazalaren koloreak, jatorriak, adinak edo sexu-identitateak, besteak beste, efektu bereizle eta diskriminatzaile batzuk izatea edo ez izatea. Clementinek esaten digunean hemen, Bilbon, beltza dela, baina ez bere herrialdean, ez da bere azalaren koloreaz hitz egiten ari, baizik eta bere azalaren koloreak tokiaren arabera dituen efektu desberdinez. Ez da gauza bera beltza izatea Kongoko Errepublika Demokratikoan edo Bilbon.

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---



## Partaidetza esanguratsua

Interseksionalitatea eta parte-hartzea eskutik doaz. Baina ez digu balio edozein parte-hartzek, baizik eta parte-hartze esanguratsu batek, pertsonen parte hartzeko dituzten aukera desorekatuak kontuan hartuko dituen.

Ez da nahikoa aniztasuna irudikatzea. Parte-hartze esanguratsua boterea lantzean datza: nori eragiten dioten lantzen diren gaiek, nor joan daitekeen eta nor ezin den joan bileretara, nork erabakitzen duen ez parte hartzea, etab. Horrek esan nahi du proiektu edo politika bat zuzentzen zaien pertsonekin estuki lan egin behar dela, haien iruzkinak –zorrotzak eta kualitatiboak– aintzat hartu behar direla eta edozein ertzetarako iradokitzen dituzten irtenbideak entzun behar direla. Atzeralekadura-ziklo bat da, eta ez litzateke inoiz amaitu behar.

Adibidez: parte-hartzea ez da soilik beharrak diagnostikatzeko etapan bermatu behar, baizik eta proiektu edo jardueraren baten prozesu osoan ezarri behar ditugu komunikatzeko eta parte hartzeko kanal desberdinak, ebaluazioan barne.

---

## Gogoeta egiteko galdera batzuk

- Zer da, gure ustez, parte-hartzea?
- Nor gonbidatzen dugu parte hartzera eta nor ez? Nola aukeratzen da nor gonbidatu eta nor ez? Nola eta nork erabakitzen du? Hausnartzen al dugu nortzuk geratzen diren parte hartzeko guneetatik kanpo?
- Parte hartzeko guneetan, zein ahots, esperientzia edo informazio-iturri balioesten dira, eta zein isilarazten?
- Askotariko parte-hartzea bermatze aldera, agian parte hartuko ez dutenen eskura jartzen al ditugu parte hartzeko bide desberdinak?



## Begirada eta lan komunitarioa

Komunitatea, beste gauza askoren artean, kide izateko eta elkarren aitortza egiteko espazio bat izan daiteke, **agentziarako**, erresistentziarako eta elkartasunerako espazio bat, edo larrial-di-egoeretan laguntzeko funtsezko azpiegitura bat, pandemia-garaian bizilagunen laguntza-sareek erakutsi zuten bezala.



Komunitatearen parte-hartzea modu askotan eta intentsitate-maila desberdinekin gerta daiteke. Alde horretatik, uste dugu arazoei ikuspegi interseksional komunitario batetik heltzeak eta esku hartzeak pertsonen harremanak izateko eta pertsonen bizitza hobetzera bideratutako loturak eraikitzeak duten gaitasuna sustatzen duela. Halaber, absentiak mobilizatu nahi ditu, “gure” espazioa zabaltzeko eta egunerokotasunean gertatzen ez diren askotariko subjektuen arteko topaketak bultzatzeko. Zentzu horretan, beste dokumentu batean adierazi genuenaren ildotik (Gandarias, 2017a), elkar ezagutzeko eta elkarren aitortza egiteko “topaguneak” sortu behar ditugu; batera duguna eraikitzeak, kolektiboki pentsatzeko eta desadostasunak elkarren arteko konfiantzatik eta errespetutik adostu ahal izateko espazioak. Azken batean, elkar topatzeko espazioak, ez bidegurutze soilak. Interseksionalitatearen begirada politiko hori funtsezkoa da, gizartearen eraldaketara zuzentzen den tresna kritiko gisa ulertzen badugu.

Bestalde, ekintza komunitarioak berarekin dakar testuinguruaren eta lurraldearen arabera errota, funtsezkoak baitira errealitatearen ikuspegi eta esku-hartze zehatzagoa eta konplexuagoa izateko. Bestela esanda, ingurunea ezagutzeak eta lurraldearekiko loturak ikuspegi interseksionala gehitzea errazten dute, esku hartzen ari garen errealitatearekiko hurbiltasuna lagungarria baita arazo jakin batean zer ardatzek eragiten duten eta zer ondorioekin detektatzeko.

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

## Erakundearekin edo elkartearekin lotutako jarraibideak

Interseksionalitatea ez da soilik kanpoko errealitatea modu konplexuagoan pentsatzeko tresna bat. Era berean, funtsezko tresna da pentsatzeko gure erakundeen barruan –bai eta erakunde, entitate edo instituzioen artean ere– nola erreproduzitzen ditugun borrokatu nahi ditugun menderatze-harremanak, hala nola **patriarkatua, arrazakeria, klasismoa edo kapazitismoa**.



### Barrura begiratzea

Oro har, interseksionalitatea besteei eragiten dion zerbait balitz bezala ikusteko joera dugu, eta ez guri eragiten digun zerbait bezala. Hala ere, erakunde bateko profesional, teknikari edo langile gisa, egiturazko boterea (banakakoa zein kolektiboa) gauzatzen duten hierarkien parte gara.

Lan egiten dugun pertsona edo erakunde bakoitzarekin garatzen ditugun zereginak ez daude botere-harreman desorekatuetatik salbu, eta horretaz jabetzea da lehen urratsa. Erreferenteak gara lagun egiten diegun pertsonentzat. Horregatik, gure zereginaren etengabeko berrikuspenak funtsezko zeregina izan behar du. Adibidez, gure joerak, aurreiritziak eta abar modu kolektiboan eta konfiantzazko espazioetan mahai gainean jartzeak lan zintzoagoa egiten lagun diezaguke.

---

### Gogoeta egiteko galdera batzuk

- Jabetzen al naiz nire posiziotik erabiltzen dudana botereaz, bai laguntzen ditudan pertsonekin, bai lankideekin?
- Espazioak sustatu ohi ditugu erakundean gatazkei buruz eta botere-harreman desorekatuek dituzten ondorioei buruz hitz egiteko?
- Zertaz hitz egiten da kafe-orduan, eta zertaz ez?
- Zer gai dira tabuak erakundean?



## Gure espazioak, metodologiak eta hizkuntza birkonstruzioa

Intersektionalitatearen begirada baliagarria da baita ere gure erakundeko espazioak, metodologiak, erabiltzen dugun hizkuntza eta abar nola diseinatuta dauden aztertzeko eta horri buruz hausnartzeko.

Espazioak ez dira neutralak, askotan gizarte-ordena hierarkikoa errepikatzen dute han lan egiten dugunon artean edo gure erakundera hurbiltzen direnen artean.

Adibidez: gure erakundearen espazioa antolatzeak errazten al du langileen arteko interakzio eta komunikazio horizontala? Eta langileen eta zerbitzura hurbiltzen diren pertsonen artekoa? Batzuetan, espazio fisikoan aldaketak egiteak (adibidez, mahaia jartzea edo ez edo non jarri erabakitzea, elkartzeko espazio lasaiak egotea, etab.) aldaketa positiboak eragin ditzake lan-dinamikan.



Gauza bera gertatzen da erabiltzen ditugun metodologiekin eta hizkuntzarekin. Hizkuntzan eta hitzetan ere oinarritzen da boterea. Garrantzitsua da horretaz jabetzea eta zubiak eraikitzea, eta ez hormak.

Horren adibide bat MENA (bidaidetik gabeko adingabe atzerriarra) hitzaren egungo erabilera da. Hasiera batean, MENA hitza (bidaidetik gabeko adingabe atzerriarra) termino neutroa da, lege-eremuan eta migrazioei buruzko azterlanetan erabiltzen dena. Hala ere, aspalditik, MENA hitza erabiltzea kategorizatze modu bat da, izaera horren alderdirik gizatiarra ezkatuz; funtsezko gertaera bat ezkatze modu bat da: heldu edo senide baten babesik ez duten haur eta nerabeez ari gara, ikusezintasunera eta gizarte-bazterketara kondenatzen direnez. MENA hitzak “kosifikatu” eta “deshu-

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

manizatu” egiten du, negatibotasunez beteta dagoelako eta administrazio publikoek haien eskubideak etengabe urratzen dituztela ahazten laguntzen duelako.

Ondoren, gure espazioek interakzioetan duten eragina eta erabiltzen dugun terminologia birpentsatzeko galdera batzuk jaso ditugu:

- 
- Nondik eta norentzat daude eraikita gure lan-metodologiak?
  - Nola dago diseinatuta zure erakundearen espazioa?. Zer elkarreragin ahalbidetzen ditu, eta zein ez?
  - Hurbileko terminologia ezaguna erabiltzen dugu gure erakundera hurbiltzen diren pertsonekin?
  - Egunerokoan erabiltzen ditugun terminoak erreproduzitzen dituzten estereotipoei eta aurreiritziei buruz hausnartzen dugu?
- 



## Aliantzak eraikitzea eta sareko lana

Interseksionalitatea praktikan jartzeak zapalkuntzak elkarri nola lotuta dauden aztertzetik harago joan behar du. Beste pertsona, kolektibo eta erakunde batzuekin aliantzak sortzeko eta indartzeko tranpolina da interseksionalitatea.

Kontua ez da besterik gabe berezitasun bat aintzat hartzea, ez eta dena berdintzea ere. Praktika politikotik, interseksionalitateak berezitasunak eta bereizgarritasunak aitortzen ditu, eta haien arteko aliantzak sortzen ditu, oinazeak edo zapalkuntza-esperientziak hierarkizatu gabe (Gandarias, 2017b). Funtsezko tresna da ertzetan kokatuta dauden iden-



## Gogoeta egiteko galdera batzuk:

- Zer garrantzi ematen diogu gure erakundean aliantzak eraikitzeari?
- Erakundeak ba al du egitura-rik eta mekanismorik sareko lan hori errazteko? Hau da, sareko lana ekimen pertsonala da ala erakundearen apustua da?
- Nolakoak dira parte hartzen dugun lan-sareak? Informazioa trukatzeko espazioak dira, edo elkarrekin eraikitze-ko espazioak?
- Nola zaintzen ditugu aliantzetarako eta sareko lanerako espazio horiek?
- Zer gairekin kostatzen zaigu gehien sareko lana egitea? Zergatik?



## Proiektu edo jarduera zehatzekin lotutakoak

Azkenik, jarduera jakin bat egiteko edo proiektu bat diseinatzeko orduan lagungarri izan daitezkeen jarraibide batzuk proposatzen ditugu.

### Proiektuak problematiken arabera pentsatzea

Proposamen batzuek, hala nola Gerard Coll-Planasek eta Roser Solà-Moralesek (2019) udal-politiken testuinguruan aurkeztutakoak, gai edo arazo jakin batzuekin lotutako desoreketan esku hartzeko ikuspegi intersektionalak irekitzen dituen aukerak azpimarratzen dituzte. Kolektiboen arabera lanaren aurrean, problematiken arabera lana estrategia baliagarria izan daiteke hainbat desoreka-ardatzek eragindako kasuak diagnostikatzeko eta horietan esku hartzeko. Ardatz bakar baten bidez identifikatutako kolektiboekin egindako lanean identifikatzen zailagoak liratekeen errealitate konplexuez jabetzeko eta errealitate horiek ikusarazteko aukera ematen du horrek. Arazo beraren aurrean, kolektibo bako-


tzak begirada bat izango du, zeharkatzen duen ardatzak baldintzatuta. Pentsa dezagun kaleko beldurraren edo segurtasunik ezaren pertzepzioan. Diagnostikoa eta ematen ditugun irtenbideak aldatu egingo dira hartzen dugun ikuspegiaren arabera: emakumeen ikuspegia, kalean dauden pertsonen ikuspegia, adinekoen ikuspegia edo arrazializatutako pertsonen ikuspegia, batzuk aipatzeagatik. Arazo horri ikuspegi intersektzionaletik heltzeko modu bat talde horiekin lanean espezializatutako erakundeen, instituzioen eta profesionalen arteko elkarrizketa litzateke. Horregatik, arazoen araberrako lanak ere aukerak sortzen ditu erakundeen artean edo, erakunde handien kasuan, erakunde horietako arloak edo sailak osatzen dituzten pertsonen artean sarean lan egiteko.



Bestalde, kolektiboan pentsatu beharrean arazoan pentsatzeak ere begirada testuinguruan jartzen laguntzen du, arazo hori pairatzen duten pertsoneri soilik begiratu beharrean, eta arazoak definitzeko modua berrikusten laguntzen digu.

### Adibide bat:

Nola definitzen ditugu lantzen ditugun problematikak? Ez da gauza bera immigrazioaren arazoa edo xenofobiaren arazoa aipatzea. Bi definizio horien ondorioak eta inplikazioak oso desberdinak dira. Arazoa migrazioaren ikuspegitik definitzeak esan nahi du arazoaren fokua migratzen duten pertsonengan eta migratzeko gertaeran bertan jartzea; migratzeko ekintza bera kriminalizatuz, eta, beraz, migratzen duten pertsonak kriminalizatuz. Hala ere, xenofobiari buruz arazo bat balitz bezala hitz egiteak pertsona hori iristen den gizartean jartzen du arazoaren fokua, leku jakin batzuetatik datozen pertsoneri harrera egitearen aurka dauden gizarteko sektoreetan, edo pertsonen mugikortasun askea eta segurua eragozten duten migrazio-politikan.





## Entzute aktiboa

Entzuteak beste pertsonarekiko arretaz eta irekitasunez jokatzea eskatzen du. Aktiboki entzuteak esan nahi du komunikazioa hitz egiten duen pertsonaren ikuspegitik ulertzea. Ez soilik pertsona hori zuzenean adierazten ari dena, baita esaten ari denaren atzean dauden sentimenduak, ideiak edo pentsamenduak ere. Kontua da tokia ematea pertsonak beren esperientziak parteka ditzaten, guztion ikuspuntua baliozkoa dela eta entzutea merezi duela jabetuta.

Hala ere, badakigu entzuteko ekintza eta elkarrizketa hierarkiek eta botere-harremanek zeharkatzen dituztela, eta hierarkia eta botere horiek isilarazi egiten dutela esateko zer-bait duena, aurrez ezarritako aurreiritziez eta ideiez betetako komunikazioa jasotzera eramaten gaituztela, edo zuzenean hierarkiak indartzen dituztela. Patricia Hill Collinsek eta Jone Martínez-Palaciosek (2018) gogorarazi digute zeinen tentagarria izan daitekeen botere-harreman bidegabeak aitortzeko eta “elkarrizketa horizontaleko” espazioetan pentsatzeko zeregina alde batera uztea. Horregatik, ikuspegi intersektionaletik egindako praktika batek zerikusia du, halaber, hierarkiak eta botere-asimetriak daudela entzutea ahalbidetzen duten baldintzei buruz hausnartzearekin. Zein lekutatik hitz egiten eta entzuten dugun aitortzea dakar horrek.

## Gogoeta egiteko galdera batzuk:

- Zein dira entzuteko orduan ditugun baldintzak?
- Jabetzen al gara zein posiziotatik hitz egiten duen bakoitzak?
- Nahikoa denbora al dugu pertsonak esateko dutena entzuteko?
- Entzuteko espazioek ondorioen bat izaten al dute gero, praktikan?
- Nola entzuten diogu elkarri taldean parte hartzen dugunok?



## Denborak eta prozesuak “su motelean”

Interseksionalitatea prozesuekin lotzen da gehiago, jarraipenik izan ezin duten proiektu puntual edo berritzaileekin baino. Gida honetan deskribatutako interseksionalitatearen proposamen praktikoek denbora behar dute prestatzeko. Adibidez, aliantzak sortzeko eta sarean lan egiteko prozesu bat behar da aurrez: su motelean prestatzen dira, ez da egun batetik bestera lortzen den zerbait.



### Gogoeta egiteko galdera batzuk:



- Proiektu bat diseinatzen dugunean epe luzera begira pentsatzen al dugu, denbora jakin batera mugatuta egon arren?
- Zer garrantzi ematen diegu proiektu batek lortu nahi dituen eta lortu nahi ez dituen inpaktuei?
- Zenbat denbora eskaintzen diogu proiektuaren prozesua partekatzeko balio dezaketen jardunbide egokiak sistematizatzeari, eta ez hainbeste emaitzei?
- Denbora eskaintzen al diogu ekintzek izan duten eraginari buruz elkarrekin hausnartzeari, desoreka-ardatzak kontuan hartuta?
- Eragindako pertsonak edo taldeek parte hartzen al dute ebaluazioan?
- Proiektuak gauzatzean, kontuan hartzen al dira prozesua ebaluatzeko espazioak, egiten ari garenari buruz hausnartzeko, edo proiektua amaitu denean soilik egiten da hausnarketa?
- Eragindako taldeen aniztasuna kontuan hartuta, norengana ez dugu lortu iristea? Zergatik?
- Zer egin daiteke etorkizuneko ekintzetan ekintzen onurak jaso ez dituzten pertsonengana iristeko?

# Tresna-banku bat



- **Zer da interseksionalitatea?**  
Kimberl e Crenshaw, azpitoluak gaztelaniaz.
- **Interseksionalitatearen ertz kritikoak leunduz:**  
Patricia Hill Collins: UNIFESP- 2023.
- “M” dokumentala, bidaiderik gabeko adingabeei buruzkoa;  
C dizko Diputazioaren Ikus-entzunezko Ekoizpenen Zer-  
bitzua. <https://www.youtube.com/watch?v=SwMAWnx5stw>
- **Interseksionalitatea**  
Tatiana Romero InteRed ONGD
- **Begirada interseksionala: Gerard Coll -Plans**  
ULPGC liburutegia, 17. atala, Violeta gunea.

## **Ikus-entzunezko baliabideak**

- ***Aplicaci n de la interseccionalidad en las pol ticas y servi-  
cios de igualdad y no discriminaci n: reflexiones cr ticas y  
recomendaciones.*** Kataluniako Institut de Drets Humans.  
Hemen eskuragarri: <https://www.idhc.org/es/publicaciones/aplicacion-de-la-interseccionalidad-en-las-politicas-y-servicios-de-igualdad-y-no-discriminacion-reflexiones-criticas-y-recomendaciones/>
- ***Ekintza eta tresna proposamenen dekalogo.*** Zehar  
Errefuxiatuekin. <https://zehar.eus/producto/decalogo-de-propuestas-de-actuacion-y-herramientas/>
- ***El muro de las discriminaciones. Herramienta de diagn s-  
tico.*** Asociaciones Sehaska, Aldarte y Alas y Ra ces. Elkar-  
te horien sareko lanaren esperientzia ikusteko: <https://www.youtube.com/watch?v=bPCA18rF2r0>

## **Proiektuak, tresnak eta materialak**

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

- **El poder transformador de la interseccionalidad. Prácticas interseccionales para fomentar la justicia social y reducir las desigualdades.** Robert Bosch Stiftung Fundazioa. Hemen eskuragarri: <https://www.bosch-stiftung.de/sites/default/files/publications/pdf/2023-07/EL%20PODER%20TRANSFORMADOR%20DE%20LA%20INTERSECCIONALIDAD.pdf>
- **Guía para incorporar la interseccionalidad en las políticas locales,** Terrassako Udala. Hemen eskuragarri: <https://igualtatsconnect.cat/wp-content/uploads/2019/09/Publicacion-Igualtats-Connect-ES.pdf>
- **Intersekzionalitatea eta Hirugarren Sektore Soziala: aniztasunari arreta ematearen aldeko apustua.** Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia, 2024.
- **Intersekzionalitatea, dibertsitatea eta asiloa. Esku-hartze soziala eta komunitarioa ikuspegi intersekzionaletik. Baliabideen mapa.** Zehar Errefuxiatuekin. <https://zehar.eus/producto/mapa-de-recursos-de-interseccionalidad/>
- **Duintasunez lurperatzeko eskubideari buruzko podcasta.** <https://www.elsaltodiario.com/laquilombera/quilombera-aborda-ausencia-cementerios-poblacion-musulmana>
- **Relief Maps.** Kotsultatu hemen: <https://reliefmaps.upf.edu/>

## Ijitoen aurkako jarrera

Ijitoen aurkako arrazakeria-modu espezifiko bat da. Arraza-nagusitasunean oinarritutako ideologia da, diskriminazio historikoak elikatutako deshumanizazio eta arrazakeria instituzionaleko modu bat, besteak beste, indarkeriaren, gorrotoaren diskurtsoaren, esplotazioaren, estigmatizazioaren eta diskriminazio gordinaren bidez adierazten dena. Ijitoen aurkako jarrera hiru dimentsiotan egituratzen da: dimentsio sinbolikoan, materialean eta instituzionalean. Ijitoen aurkako jarreraren dimentsio sinbolikoaren barnean txertatzen dira ijitoak modu estereotipatuan irudikatzen dituzten diskurtsoak (hitzezkoak, errexitatuak, kantatuak edo idatziak), irudiak (dokumentalak, artistikoak edo publizitatekoak) eta testuak (filmetakoak, zientifikoak edo literarioak). Ijitoen aurkako jarreraren dimentsio sinbolikoak indartu egiten du ijitoen eta gizarteko gainerako pertsonen arteko urruntasun kulturala, eta desaktibatu egiten ditu hurkoarekiko identifikaziorako funtsezko mekanismo etikoak: enpatia, errukia edo elkartasuna.

## Agentzia

Agentzia pertsonen beren testuinguru historikoekin eta egoera zehatzekin elkarreragiteko duten gaitasuna da, inguru soziokulturala edota testuingurua eraldatzeko helburua duten jardueretatik abiatuta; jarduera horiek ez dute beti kontzienteki eta nahita egindakoak izan behar. Gaitasun hori kolektiboa ere izan daiteke; izan ere, ekintza batzuk beste pertsona batzuekin koordinatzeko eta beste batzuen aurka egiteko trebetasuna hartzen du barnean agentziak, eta proiektu kolektiboak prestatzeko, konbentzitzeko edo hertsatzeko xedez egiten dira. Agentziarako gaitasuna pertsonok eta erakundeok ekintza bultzatzeko dugun gaitasuna da. Erresistentzia kolektiborako modu gisa uler daiteke, edo erronka gisa, gizartean boterea nola banatu den kontuan hartuta.

## Glosategia

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

### **Kapazitismoa**

Desgaitasuna debaluatzen duen jarrera edo diskurtsoa, gorputz-osotasunaren balorazio positiboaren aurrean, azken hori ustezko giza normaltasunaren funtsezko baldintzarekin parekatzen baita. Horren ondorioz, desgaitasuna gizakiaren baldintza debalutzailetzat hartzen da.

### **Klasismoa**

Gizarte-klase desberdinetako kide izateagatik sortzen den desorekan errotutako diskriminazio modu bat da klasismoa. Pertsonen egoera ekonomikoa, hezkuntza-maila edo estatus soziala dela eta, horietako batzuk goragoko edo beheragoko mailakotzat jotzen dituen jarrera edo sinesmena du ezaugarri. Klasismoa beheragokotzat jotzen diren klase sozialetakoak direnekiko estereotipoen, aurreiritzien eta tratu bereziaren bidez adierazten da. Gizarte-maila pribilegiatuetan ez daudenak baztertzera, marjinezera eta pertsona horiei aukerak eta eskubideak ukatzera eramaten du horrek. Funtsean, klasismoak gizarteko desorekak betikotzen ditu, mugikortasun soziala oztopatzen du eta gizarteko ekitateari eragiten dio.

### **Aniztasun funtzionala**

Termino hori 2005ean proposatu zuen desgaitasunen bat duten pertsonen komunitateak, Bizimodu Independentearen Foroa osatzen duenak. Nagusi den diskriminazio-eredua hizkuntzaren bidez aldatzeko xedez, *aniztasun funtzional* kontzeptua erabiltzen da “desgaitasun” terminoaren ordez, biztanleriaren sektore horren definizioan negatibotasuna ezabatu eta aniztasunaren esentzia indartu nahian. “Aniztasun funtzional” terminoak ikuspegi soziala bilatzen du, gizabanako bakoitza izaki bakar gisa ulertuta, gaitasun desberdinak baititugu guztiok, eta defizitak eta gabeziak alde batera utzita. Aniztasun funtzionala duten pertsonen buruz hitz

egitean, zeregin jakin batzuk egiteko modu desberdina duten gizabanakoei egiten diegu erreferentzia.

### **Desoreka-ardatzak**

Desoreka-faktoreak dira. Adibidez, generoa, jatorria edo klasea. Faktore horiek botere-sistema estrukturalen ondorio dira (adibidez, sexismoa, arrazakeria, homofobia...), eta botere horiek modu desorekatuan banatzen dituzte gizarte-baliabideak.

### **Homofobia**

Pertsona homosexualen aurkako ezinikusia edo diskriminazioa. Sexu-joera hori duten pertsonenganako gorrotoa, etsaitasuna edo gaitzespena eragiten du, eta, askotan, baita sexu-aniztasunaren ideia beraren aurkakoa ere.

### **LGTBI**

Lesbianak, gayak, transak, bisexualak eta intersexualak barnean hartzen dituen akronimoa.

### **Zapalkuntza**

Erabilera tradizionalan, zapalkuntzak talde agintari baten tirania adierazten du. Baina 1960ko eta 1970eko hamarkadetatik aurrera, kontzeptu hori zabaldu egin zen, eta talde eta pertsona batzuek gizarte osoaren eta hura osatzen duten erakundeen aldetik sistematikoki eta egunero jasaten dituzten desabantailak eta bidegabekeriak jasotzeko erabiltzen da baita ere. Horrela ulertuta, zapalkuntza egiturazkoa da (menderatze-sistemetan oinarritzen da, hala nola sexismoan edo arrazakerian), eta horren ondorioek banaketa ekonomikoa hartzen dute barnean, baina harago era badoaz. Zapalkuntza-ren kausak zalantzan jartzen ez diren ohitura eta sinboloetan ageri dira, arau instituzionalen azpian dauden oinarrietan eta arau horiek jarraitzearen ondorio kolektiboetan.

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

### Passinga

Termino anglo-saxoi bat da, eta gizartean sexu- edo genero-identitate jakin bat duen pertsonatzat jotzea esan nahi du, pertsona horren itxuraren arabera eta pertsona horrek bere burua nola identifikatzen duen kontuan hartu gabe. *Passingak* ez die soilik eragiten LGTBI gisa identifikatzen diren pertsoneri. Esate baterako, pertsona batek gazteagoa eman dezake, berea ez den gizarte-klase batekotzat har daiteke, edo homosexualtzat har daiteke, bere burua halakotzat identifikatu ez arren.

### Patriarkatua

Botere-sistema bidegabea da, gizonak emakumeak menderatzean oinarritzen dena. Gizonak familiako emakumeen eta haurren gainean duten nagusitasunaren adierazpena eta instituzionalizazioa da, eta gizarte osora hedatzen da.

### Boterea

Norberaren borondatea beste pertsona batzuen portae-ran inposatzeko gaitasuna (eremu sozialean, familiakoan, sexualean, etab.). Hori da boterearen kontzepziorik ohikoena, baina beste kontzepzio bat ere badago, “norbaiten gaineko botere” horretaz gain (domeinua, zapalkuntza, kontrola eta inposizioa), “gauzak banaka edo beste pertsona batzuekin antolatuta egiteko botere” bati dagokiona, eta ez pertsona horien aurka. Bigarren kontzepzio horretan, boterea sorkuntzarekin, erabakitze gaitasunarekin, autonomiarekin eta ahalduztzearekin lotzen da.

### Pribilegioa

Pertsona batek (jaiotzatik gehienetan) dituen abantailen multzoa, normalean horien jabe dela ohartzen ez den arren. Pribilegioak berarekin dakar boterea, baliabideak eta aukerak eskuratzeko aukera gehiago izatea, soilik pertsona

europarra izateagatik, larruazal zuria izateagatik, zisgeneroa izateagatik, maila sozioekonomiko altukoa izateagatik, desgaitasunik ez izateagatik edo gizon izateagatik edo heterosexuala izateagatik. Baina pribilegioa, batez ere, aukera horiek ziurtzat jotzea da.

### **Arrazakeria**

Botere eta pribilegioen sistema bidegabekoa da, pertsonak arraza-talde desberdinetan banatzen dituenak, eta gizarte-baliabideak (dirua, aintzatespena, prestigioa...) modu desorekatuan banatzen dituenak talde horien artean, arrazaren araberrako sailkapenean oinarrituta. Arrazakeria instituzionalizatua izan daiteke (adibidez, politika publikoek erreproduzitzen duten arrazakeria), zientifikoa (adibidez, arraza-nagusitasunaren teoriak) eta egunerokoa (adibidez, pertsona arrazializatuekiko estigma). Arrazakeriak, bestalde, talde edo pertsona bati arraza-kategoria bat esleitzea dakar. Termino horrek adierazi nahi du arraza menderatzera bideratutako eraikuntza soziala dela, eta, beraz, talde nagusiek zapalduen gainean inposatua.

### **Botere-harremanak**

Boterea dinamikoa da, eta harremanetan oinarritzen da; hau da, gizabanakoen eta taldeen arteko harreman sozial, ekonomiko eta politikoetan erabiltzen da, eta modu desorekatuan banatuta dago. Botere-maila desberdinak gizarte-zatiketen bidez sostengatzen eta betikotzen dira, bai eta familiaren, erlijioaren, hezkuntzaren, komunikabideen, legearen eta antzeko instituzioen bidez ere. Boterea gauzatzeko, hezteko teknikak, menderatzeko prozedurak eta obedientzia lortzeko sistemak erabiltzen dira.

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

### Sexismoa

Sexismoak sexu biologikoagatiko diskriminazioa sustatzen duten jarrera eta praktika guztiak hartzen ditu barnean, eta pentsamendu bitarra du oinarrietako bat. Hala, bada, emakumei eta gizonei lotutako kontzeptu multzo bat esleitzen zaigu, elkarren aurkakoak eta ustezko desberdintasun biologikoetan oinarrituak, azkenean, izateko, sentitzeko eta pentsatzeko moduak definitzen dituztenak. Estereotipo kulturalak dira, eta gaur egun indarrean daude oraindik. Adibidez, zenbait kontzeptu, hala nola objektiboa, unibertsala, arrazionala, abstraktua, publikoa, burua etab. esfera maskulinoari egozten zaizkio, eta horien kontrakoak, berriz, hala nola subjektiboa, partikularra, emozionala, zehatza, pribatua, gorputza eta abar, femeninotasunaren munduarekin identifikatzen dira.<sup>2</sup>

### Subjektu normatiboa

Teoria kritikoetatik, subjektu normatiboa subjektu idealizatua da, gorputz baten bidez irudikatua eta gizarte jakin batean normaltzat edo desiratzat jotzen diren balioak eta portaerak erreproduzitzen dituen (adibidez, heterosexualitatearen derrigortasuna). Normatibitatea hainbat intentsitate-mailatan erreproduzitzen da, gizarteko tresnen bidez (adibidez, eskola edo familia), politiken bidez (adibidez, legeak eta politika publikoak) edo elementu kulturalen bidez (adibidez, komunikabideak).

### Xenofobia

Atzerriarizat edo komunitatetik, gizartetik edo nazio-nortasunetik kanpokotzat jotzeagatik pertsonak arbuizatzea, baztertzea eta, askotan, iraintzea dakarten jarrera, aurreiritzi eta portaeren multzoa. Xenofobiak atzerriarren edo halakotzat jotzen direnen aurkako etsaitasuna, arbuioa edo gorrotoa dakartza.

## Erreferentziak

Ahmed, Sara (2012). On being included: Racism and diversity in institutional life. Durham, NC: Duke University Press.

Bilge, Sirma (2013). Intersectionality undone: Saving intersectionality from feminist intersectionality studies. Du Bois Review: Social Science Research on Race, 10(2), 405-424.

Bilge, S. (2010). Recent Feminist Outlooks on Intersectionality. *Diogenes*, 57(1), 58-72.

Collins, Patricia Hill (2019). **Intersectionality as Critical Social Theory**. Durham: Duke University Press.

Collins, Patricia Hill, & Martínez-Palacios, Jone (2018). Educación crítica y emancipadora desde la epistemología del feminismo negro. **Hariak. Recreando La Educación Emancipadora**, (4), 12-19.

Collins, Patricia Hill & Bilge, Sirma (2016). **Intersectionality**. Cambridge, UK: Polity Press.

Coll-Planas, Gerard, & Missé, Miquel (2018). Identificación de los factores de inserción laboral de las personas trans. Exploración del caso de la ciudad de Barcelona. **OBETS. Revista De Ciencias Sociales**, 13(1), 45-68. doi :<https://doi.org/10.14198/OBETS2018.13.1.02>.

Coll-Planas, G., y Solá-Morales, R. (2019). Guia per incorporar la interseccionalitat a les polítiques locals. Ajuntament de Terrassa. <https://igualtatsconnect.cat/wp-content/uploads/2019/06/Publicacion-Igualtats-Connectades.pdf>.

Combahee River Collective [1977] (2012). Un manifiesto feminista Negro. In Platero, Raquel (Lucas) (Ed.), ***Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada***. (pp. 75-86). Barcelona: Edicions Bellaterra.

Crenshaw, Kimberl  e (1989). Demarginalizing the intersection of race and sex: A Black feminist critique of antidiscrimination doctrine, feminist theory and antiracist politics. ***The University of Chicago Legal Forum***, 140, 139-167.

Crenshaw, Kimberl  e (1991). Mapping the margins: Intersectionality, identity politics, and violence against women of color. ***Stanford Law Review***, 43(6), 1241-1299.

Cruells, Marta (2015). ***La interseccionalidad: Tipos y factores de entrada en la agenda pol  tica, jur  dica y de los movimientos sociales***. Tesis Doctoral. Universidad Aut  noma de Barcelona.

Esteban, Mari Luz., Guill  -Arakistain, Miren., & Lux  n-Serrano, Marta. (2024). Ethnography of the kitchen: The Women's House, a space for feminist alliance and intercultural encounter. ***Ethnography***, 25(1), 58-75.

Evans, Mari. (2004) 'My Words Will Be There.' En Wylie Hall, J. (ed.). ***Conversations with Audre Lorde***. Jackson: University Press of Mississippi, 71-78.

Gandarias Goikoetxea, Itziar. (2017a). De la unidad a lo com  n: hacia una articulaci  n feminista de las diferencias. La experiencia de la Plataforma de la Marcha Mundial de Mujeres de Euskal Herria. ***Universitas Human  stica***, (83), 361-387.

Gandarias Goikoetxea, Itziar (2017b). ¿Un neologismo a la moda?: Repensar la interseccionalidad como herramienta para la articulación política feminista. *Investigaciones feministas*, 8(1), 73-93. doi: <https://doi.org/10.5209/infe.54498>.

Garry, Ann (2011). Intersectionality, metaphors, and the multiplicity of gender. *Hypatia*, 26(4). 826-850.

Hancock, Ange-Marie (2007). When multiplication doesn't equal quick addition: Examining intersectionality as a research paradigm. *Perspectives on Politics*, 5(1), 63-79.

Ken, Ivy (2008). Beyond the intersectionality: a new culinary metaphor for race-class-gender studies, *Sociological Theory*, 26(2), pp. 152-172

Platero, Lucas. (2012). *Intersecciones: Cuerpos y sexualidades en la encrucijada*. Barcelona: Edicions Bellaterra.

Rodó-Zárate, Maria (2023). Intersectionality and the Spatiality of Emotions in Feminist Research. *The Professional Geographer*, 75(4), 676–681.

Rodó-Zárate, María (2021). *Interseccionalidad. Desigualdades, lugares y emociones*. Manresa: Edicions Bellaterra.

Zugaza, Uxue (2023). *Entre los caminos trillados y las líneas de deseo. La interseccionalidad en la política en igualdad en España* (1983-2021). Tesis doctoral, UPV/EHU.

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

